

Etixerik Gabeko Pertsonak pairatzen dituzten arazoei buruz Caritaseko konfederazioak urtero, urrian, egiten duen sentsibilizazio-kanpainak 30 urte bete ditu. Batez ere, zenbait esparru garrantzitsutan eskubideak eskuratzeko dituzten zailtasunak jartzen ditu agerian, hala nola babes soziala, enplegua eta etxebizitza eskuratzeko zailtasunak.

Horixe da Caritasetik, gure parroketatik, ikusten eta laguntzen dugun errealitatea. Egunetik egunera konplexuagoa eta zailagoa den errealitatea, pertsona horiek ezin baitituzte eskuratu duintasunez bizitzeko beharrezko baliabideak, eta ezin baitiote eutsi egunez egun itogarria zaien egoera batetik irteteko itxaropenari: pobreziaren eta aukerarik ez izatearen zirkulutik irteteko itxaropenari, alegia.

Gainera, pandemiak agerian utzi du gero eta handiagoa den errealitate sozial hori: Euskal Autonomia Erkidegoan, ia 2.800 lagun bizitegi-bazterketa larrian; eta horietatik 846, pandemia hasi ondoren prestatutako aldi baterako ekipamenduren batean ostatu hartuta.

“ESTALDURARIK GABE” izeneko kanpainaren bidez, irmo adierazi nahi dugu Etixerik Gabeko Pertsonen, askotan, ukatu egiten zaizkiela beren eskubideak (osasun-laguntza, etxebizitza, gizarte-babesa, erroldatzea, etab.), bai eta gizartean eta komunitatean parte hartzea ere.

Hori dela eta, ezinbestekoak dira pertsonak erdigunean jarriko dituzten politika publiko konprometituak, pertsonak beren eskubideak eskuratu eta erabil ditzaten. “Inor ez etxerik gabe”, errealitate izan dadin, ezinbestekoa da gizarte osoaren konpromisoa: administrazio publikoak, gizarte-erakundeak, komunikabideak, erakundeak, kaltetutako pertsonak, gizartea oro har, etab.

Komunikatu honen bidez, gure hirietako arazo honen inguruan sentsibilizatu nahi dugu, eta arazo hori azaldu elkarlanean dihardugun udaletan, kalean eta etxerik gabe dauden pertsonen jasaten duten sufrimenduaren eta ikusezintasunaren aurrean konpromiso soziala eta instituzionala indartzeko.

Eta zuk, zer diozu? Esazu “aski da!”. Inor ez etxerik gabe